| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2009/05/27<br>**Fecha**: 27/05/2009 | **Ordua**: 19:00 – 21:00<br>**Hora**: 19:00 – 21:00 | **Lekua**: Iturri Kultur Etxea<br>**Lugar**: Iturri Kultur Etxea |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes:**

***Udala / Ayuntamiento:***

- Ainhoa Moreno (Teknikaria / Técnico) papel participante en el foro

***Gizartea/Sociedad:***

Herritar 15 / 15 ciudadanos

***Kontsultaria/Consultora:***

Ainhoa Ugalde / Amaia Abanzabalegi / Juan Mª Lersundi(BITAKA)

## 1. Saludos y agradecimientos

Ainhoa Ugalde, técnico de BITAKA, da la bienvenida y agradece a todos y todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.

Expone que actualmente La Mancomunidad de la Merindad de Durango está elaborando el estudio relativo al Plan de Movilidad Sostenible en la comarca del Duranguesado. Por ello, coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar dos foros de participación ciudadana donde toda la ciudadanía podrá tomar parte en el debate.

Tras la presentación , la Consultoría procede a detallar el orden del día:

- Saludos y agradecimientos;
- Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado;
- Ruegos y preguntas;
- Trabajo grupal;
- Resumen del trabajo grupal;
- Agradecimientos y próximos pasos.

Dado el número de asistentes, se opta por realizar una presentación abierta y comentada por los mismos y posteriormente iniciar un debate.

## 1. Aurkezpena eta esker onak

BITAKAko teknikaria den Ainhoa Ugaldek ongietorria eman die bertaratuei eta eskerrak ematen dizkie euren parte-hartzeagaitik. Aldi berean euren laguntzaren garrantzia nabarmendu du Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren planaren diagnosia aurkeztu den foro honetan.

Gaur egun Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren inguruko azterketa bat abian dela azaldu du, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak bultzatuta. Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da denen artean gai horren inguruan eztabaida burutzeko. Hori da partaidetza foroak eratzeko arrazoia. Helburua Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren zirriborroa aurkeztu eta horren inguruko iritziak elkar trukatzea da.

Aholkularitzako kideek, jarraian, gai zerrenda azaldu dute:

- Aurkezpena eta eskerrak
- Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosiaren aurkezpena.
- Galde-eskeak
- Taldekako lana
- Taldekako lanaren laburpena
- Agurra eta hurrengo pausuen azalpena.

Bertaratutako jende kopurua dela eta, aurkezpen zabal bat egitea erabaki da, eta beraiek iritziren bat plazaratu nahi badute lasaitasun osoz egin dezatela. Gerora elkarrizketa bat egin da

| | |
|---|---|
| | gaiaren inguruan. |
| **2. Presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado** | **2. Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Diagnosiaren aurkezpena** |
| Ainhoa Ugalde y Amaia Abanzabalegi realizan la presentación de la Diagnosis del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado mediante la ayuda de una presentación por ordenador.<br>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: el alcance y la razón de ser del estudio; las fases del plan; los objetivos que debe cumplir; el contenido y los datos más relevantes del diagnóstico del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado.<br>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que el documento del diagnóstico es un documento provisional que se espera que sea completado con las aportaciones propuestas por la ciudadanía en el presente foro. | Ainhoa Ugalde eta Amaia Abanzabalegik aurkeztu dute Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren diagnosia, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.<br><br>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: azterketaren eremua (zein herritan burutu den), zergaitik egin den, planaren faseak, bete beharreko helburuak, eta azkenik, diagnosiaren edukia bera eta datu esanguratsuenak.<br><br>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Diagnosiaren behin betiko bertsioa herritarren ekarpenekin osatutako izango da. |
| **3.- Ruego y preguntas** | **3.- Galdera- eskeak** |
| La consultora consulta a las personas asistentes si desean plantear alguna pregunta o ruego a cerca de la presentación expuesta. Las cuestiones planteadas en este turno de preguntas son las siguientes:<br>1.- Preguntan cuál es la función del parking intermodal de 22 plazas situado en el centro urbano de Elorrio. Los consultores responden que aunque dicho parking es usado por trabajadores/as de Betsaide, se constata que residualmente gente proveniente de Elgeta y Arrasate aparca ahí el coche para coger el autobus a Bilbao.<br>2.- Se comenta que debería existir una conexión de autobús que uniese Elorrio con Berriz, ya que hay mucha gente de Elorrio que trabaja en Berriz y viceversa.<br>3.- Preguntan si en Elorrio se realizó alguna medición de ruido. Al respecto se le responde, que con el visto bueno de la Mancomunidad se tomaron 4 muestras de ruido pensando en las zonas donde podría haber más ruido generado por la movilidad. En todo caso, se comenta que el objeto de este estudio no es analizar el ruido de la comarca, | Teknikariek egindako aurkezpenari buruzko galderarik luzatu nahi den galdetu diete bertaratukoei. Galdera txanda honetan luzatutako galderak hauek dira:<br>1.- Elorrioko herrigunean intermodalitate-aparkaleku bezala identifikatutako zonaldeari buruz izan da lehen galdera. Bere funtzioa zein den galdetu du parte-hartzaile batek. 22 aparkaleku diten gune hori batez ere Betsaideko langileek erabiltzen dutela erantzun da, baina Elgeta eta Arrasateko bizilagun batzuek bertan uzten omen dute autoa gerora autobusa hartzeko.<br>2.- Elorrio eta Berrizen artean autobus zerbitzua egon beharko litzatekeela aipatu da, jende askok Berriz partean lan egiten duela eta alderantzizko norabidean ere badatozela langileak esan da.<br>3.- Elorriori dagokionez egindako azterketan zarataren neurketarik egin den galdetu tu bertaratutako batek. Galdera honi erantzunez, Amankomunazgoaren oneritziaz Durangaldean mugikortasunak eragindako leku zaratatsuenetariko batzuk aukeratu eta lagin bat egin dela esan dute teknikariek. Edonola ere azterketaren helburu zehatza ez dela aipatu dute, azterketa |

| | |
|---|---|
| siendo este tema un apartado complementario al Plan de Movilidad.<br>4.- Preguntan si el parking de EROSKI donde estacionan los camiones es público o privado. Los consultores comentan que creen que es un parking privado, pero que de todos modos lo iban a consultar.<br>5.- Preguntan qué se podría hacer para solventar el problema de no adecuación a las necesidades del transporte público de Garai. Al respecto se contesta que podría haber varias alternativas como instaurar una linea con más frecuencia que uniese Garai, Izurtza y Mañaria o instaurar un servicio de Taxi Bus similar al de Iurreta, pero con itinerarios y horarios virtuales.<br>6.- Preguntan si las retenciones de Alfredo Baeschlin de Abadiño no se solucionarían con reducir las fases semafóricas. Se le responde que existe un estudio que sumando con la prohibición del giro a la izquierda propone reducir las fases semafóricas, pero que todavía no se ha ejecutado. Ahora bien, el problema de las retenciones se reduciría mucho si subiésemos el nivel de ocupación de los vehículos, ya que casi todos los vehículos a hora punta de la tarde provenientes de Elorrio van en general con una persona y que eso incrementa la cantidad de vehículos.<br>Una vez respondidas todas las cuestiones planteadas, nadie muestra signos de tener alguna cuestión que realizar y se entiende que no hay ninguna pregunta más al respecto, dándose paso al siguiente punto del orden del día. | osatzeko atal bat da zarataren neurketa.<br>4.- EROSKIren alboan dagoen aparkalekuari buruzko galdera bat luzatu du bertaratutako batek. Kamioientzako aparkaleku hau publikoa edo pribatua den galdetu du hain zuzen ere. Aholkularien ustez aparkaleku hau pribatua dela erantzun da, baina edonola ere kontsultatuko dutela.<br>5.- Garaiko garraio publikoa da hizpide jarraian, bertako garraio publikoa herritarren beharrizanetara egokitua ez egotea nola konpon daitekeen galdetu du parte-hartzaile batek. Aukera ezberdinak aztertu behar direla erantzun da, adibidez maiztasun haundiagoa izango duen eta Garai, Izurtza eta Mañaria lotuko dituen linea bat ezartzea, edo Iurretako Taxi Bus ekimenaren antzerako bat, ordutegi eta ibilbide "birtualekin".<br>6.- Abadiñoko Alfredo Baeschlin etorbidean sortzen diren auto-pilaketak ekiditzea semaforoen faseak laburtuz lortuko litzatekeen galdetu da. Gai honi dagokionez aholkularitzak duen informazioa luzatzen du: Badagoela bidegurutze honen azterketa bat, eta ezkerretarako biraketa galerazi eta semaforoen faseen denbora murrizketa proposatzen duela, baina oraindik ez da konponbide hau ezarri. Auto-pilaketaren arazoa bestalde autoak gehiago beteko balira asko murriztuko litzateke, arratsaldeetan, puntako orduan Elorriotik Durangorantza doazen ibilgailu gehienak pertsona bakarrarekin doaz eta.<br>Galdera hauek erantzun ondoren, eta beste galderarik ez dagoenez, gai-zerrendari jarraiki, aurkezpenari buruzko elkarrizketari ekin zaio. |
| **4. Debate sobre la presentación** | **4. Aurkezpenari buruzko elkarrizketa** |
| Mediante unas preguntas que sirven de guía, la consultora trata de recabar la mayor información relativa a la percepción que tiene la ciudadanía respecto a la movilidad sostenible y el Plan de Movilidad Sostenible.<br><br>Dado el número de asistentes, las consultoras proponen formar dos grupos de trabajo. Mediante dicho trabajo grupal se obtienen importantes aportaciones que serán de utilidad a la hora de completar el borrador de la diagnosis:<br><br>▪ **Participación ciudadana:** | Elkarrizketa burutzeko gidoi bezala galdera batzuk aurkezten ditu aholkularitzak, herritarrek mugikortasun iraunkorra eta abian den Mugikortasun Iraunkorraren Planari buruzko perzepzioa eta informazioa jaso nahi da.<br>Bertaratutako parte-hartzaile kopurua kontuan izanik, teknikariek bi talde osatzea proposatu dute. Taldekako lan honen bitartez diagnosiaren zirriborroa osatzeko ekarpen garrantzitsuak jaso dira. Ekarpenak hauek izan dira:<br><br>▪ **Herritarren partaidetza:**<br>- Era honetako herritarren partaidetza foroak antolatzea oso |

- Se comenta que es positivo que se realicen foros de participación ciudadana de este tipo y que se deberían de hacer en todos los estudios que pudiesen tener calado en la calidad de vida de la ciudadanía.

- **Peatón y bicicletas:**

  - En todo caso, los carriles para peatones y para bicicletas deberían ser ante todo viales seguros. Además, la administración debería animar el uso de los carriles implantando infraestructuras, alquiler de bicis y con un método eficaz para gestionar el aparcamiento de bicis.
  - También se comenta que para el trasvase de transporte privado a medios más sostenibles será necesario un cambio de mentalidad radical.
  - Habrá que mandar mensajes positivos para que todos/as cambiemos la mentalidad del sentimiento de independencia y comodidad que genera el coche.
  - El trazado del carril peatonal y el carril bici podría ser el que existió en su día con el tren de Elorrio.
  - Entre Elorrio y Durango transcurren muchos ciclistas que se juegan el tipo, ya que no hay arcén y los vehículos van a grandes velocidades.
  - Hay que potenciar la parte saludable de ir andando o en bicicleta.
  - Alguien comenta los patines como medio de transporte.
  - El clima de Euskadi no ayudaría mucho a popularizar el uso de la bicicleta, aunque se subraya que es una cuestión de mentalidad (Por ejemplo: Holanda, Alemania...)
  - El uso de la bici es una cuestión de mentalidad, la cual se debería de cambiar desde la educación en las Escuelas y desde los mismos hogares. Hay que enseñar a la próxima generación moverse en medios más sostenibles.
  - La consultora informa sobre los planes que actualmente se están elaborando en el Gobierno Vasco y en la DFB. Además, informa sobre una Ley de Movilidad en Cataluña.

- **Camino Escolar Seguro:**

positibotzat jo da, eta herritarren bizi-kalitateagan eragina duten edozein gairi buruz azterketa bat egiten den bakoitzean mota honetako foroak antolatu beharra azpimarratzen.

- **Oinezkoak eta bizikletak:**

  - Oinezko eta bizikletentzako bide-sarea definitzerakoan ibilbide hauek batez ere seguruak behar dira izan. Bestalde, administrazioaren aldetik bide-sare hauen erabilera bultzatu beharko litzateke, azpiegituren aldetik batetik eta bestetik bizikletak alokatzeko aukera jarri eta bizikleten aparkalekuen kudeaketa eraginkor bat eginez.
  - Garraio pribatutik garraiobide iraunkorretara aldatzeak erabateko mentalitate aldaketa bat behar duela ere aipatu da.
  - Mentalitate aldaketa hau lortzeko mezu positiboak luzatu behar dira, denok ibilgailuak sortzen duen independentzia eta erosotasun sentimentua alde batera uzteko.
  - Oinezko eta bizikletentzako bide-sarearen ibilbidea Elorrioko lehenagoko trenaren ibilbidea zena izan daitekeela aipatu da.
  - Elorrio eta Durango bitartean ibiltzen diren bizikleta erabiltzaile askok arrisku egoerak jasaten dituztela salatu da, bazterbide gabeko guneak daudelako, eta ibilgailuak abiadura bizian doazelako.
  - Ibilbide hauetan zehar bizikletaz gain patinak ere garraiobide izan daitezkeela esan da.
  - Hasiera baten Euskadiko klimak ez omen du lagunduko bizikletaren erabilpenerako, baina mentalitate kontua dela azpimarratu da (Adibide bezala Holanda eta Alemania jarri dira).
  - Bizikletaren erabilera mentalitate kontua da, eta ikastetxeetan eta familietan bertan hasi beharko litzateke mentalitate aldaketa hau. Hurrengo belaunaldiei garraiobide iraunkorragoak erabiltzen erakutsi behar zaie.
  - Aholkularitzak bizikleten ibilbideen inguruan erakunde desberdinetatik (Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiako Foru Aldundia) dauden plangintzak azaldu dira. Gainera Kataluniako Mugikortasun Legeari buruz aipamen bat egin da.

- **Eskolarako bide segurua:**

- Se comenta antes todo el mundo iba andando a la escuela y que hoy en día muchos padres / madres llevan a los/as niños/as en sus vehículos colapsándose en horas de entrada y salida la Escuela. Por ello, y con el objetivo de educar a nuestros/as niños/as a utilizar unos medios mas sostenibles, se ve como posible implantar un autobús escolar a pie. Este autobús a pie recogería a los/las niños/as en paradas pre-establecidas y todos/as irían caminando a la Escuela con supervisión de monitores/as o de padres/madres.

- **Transporte público - colectivo:**

- Respecto a las líneas existentes y potenciales del autobús se dice lo siguiente:

  - Elorrio – Berriz: Actualmente, no existe ninguna línea de Bizkaibus que una estos dos municipios y se tiene constancia que existe mucha gente de Elorrio que trabaja en Berriz y viceversa.
  - Elorrio – Mondragón: Los horarios del Lurraldebus no responde con las necesidades de la ciudadanía de Elorrio que estudia o trabaja en Mondragón. Además, los horarios no se visualizan en las paradas, de tal modo que Lurraldebus tiene paradas inaccesibles en cuanto a falta de información de.
  - Elorrio – Durango: En opinión de una de las personas asistentes, la cantidad de los servicios de Bizkaibus existentes entre estos dos municipios en ocasiones parece excesiva.

- Los horarios del autobús deberían de adecuarse a los horarios laborales.

- Las políticas sobre el transporte público y los carriles peatonales y de bici deberían de desarrollarse con una visión global que englobase más de un territorio.

- Es necesario la construcción del corredor Durango – Beasain.

- Se realiza la observación de que a veces da la sensación que la DFB ve el transporte público desde una perspectiva económica y no desde una perspectiva que es un servicio que da a toda la ciudadanía.

- En referencia a los autobuses utilizados por

Lehenagoko garaian eskolara oinez joaten ziren umeak eta gaur egun guraso askok umeak eskolara autoetan hurreratzen dituztela eta ikastetxeetako sartu-irteerak kolapsatzen dituztela aipatu da. Hori dela eta, eta gure umeak garraiobide iraunkorragoen erabileran hezteko, oinezkoen autobusa ezartzea aipatu da. Oinezkoentzako autobus honek aurrez ezarritako geralekuak izango lituzke eta umeak eskolara bidea oinez egingo lukete, begiraleek edo gurasoek lagunduta.

- **Garraio publikoa eta kolektiboa:**

- Gaur egun dauden lineak eta etorkizun baten beharko liratekeenak dira hizpide:

  - Elorrio – Berriz: Gaur egun ez dago Bizkaibus zerbitzurik herri hauek lotzeko, eta esan denaren arabera, Elorrioko jende askok egiten du lan Berrizen eta alderantzizko kasua ere ematen da.
  - Elorrio – Arrasate: Lurraldebusen ordutegiak ez daude egokituak Arrasaten ikasten edo lan egiten dutenen beharrizanei. Gainera, geralekuetan ez dago ordutegien informaziorik, beraz, informazio gabezia honen ondorioz geralekuak ez direla irisgarriak esan daiteke.
  - Elorrio – Durango: Parte-hartzaileetako baten ustetan, bi herri hauen artean dagoen Bizkaibus zerbitzua batzuetan larregikoa omen da.

- Autobus zerbitzuen ordutegiak lan-ordutegiei egokituak izan beharko lirateke.

- Garraiobide publikoa eta oinezkoen eta bizikletentzako bide-sareen garapena lurralde batetara ezin da mugatu. Ikuspegi orokorra duen politika bat egon behar da garapen hauen atzetik.

- Durango – Beasain korridorea eraikitzearen beharra azaldu da.

- Bizkaiko Foru Aldundiak garraio publikoarekiko duen jarrera aipatu da, batzuetan alderdi ekonomikoa bakarrik begiratzen denaren irudia ematen duela, eta ez dela gizarteari zerbitzua ematearen ikuspuntutik aztertzen.

- Bizkaibusek bere zerbitzua eskaintzeko dituen autobusen

Bizkaibus, se dice que en ocasiones (dependiendo de la línea) son demasiado grandes para el servicio que puedan dar y que bastaría con microbuses más accesibles al público.

- Tienen buena aceptación los tablones electrónicos de información municipal que se han instalado recientemente en las paradas de Bizkaibus.

- Actualmente, el uso del transporte público está penalizado porque es muy caro y por ello, debería de reducirse su precio para que su uso se popularice.

- No tiene autobús los siguientes barrios: Leinz - Miota, Gazeta, Gaztañeta, Lekeriketa, Berriozabaleta, Berrio, Aldape, Araunas, Iguria...

- Sería conveniente que existiese un autobús o tren que uniese los municipios de la comarca.

- El autobús puede ser involucrado en las retenciones provocadas por los coches, sin embargo un tren o un tranvía no tendría ese efecto negativo.

- El tren o el tranvía tiene las horas de entrada y salida determinadas y no les afecta las retenciones de las carreteras.

- Sería idóneo un tren o un tranvía entre Elorrio y Durango, siempre y que tuviese una buena frecuencia.

- Se comenta que al parecer PTP contempla la posibilidad de tranvía entre Elorrio y Durango.

▪ **Transporte alternativo: compartir coche:**

- La promoción e iniciativa del compartir coche debería de ir a manos del Ayuntamiento. (Por ejemplo: Página web o carteles luminosos)

- La sensibilización de compartir el coche debería de ir hacia que esté mal visto que el coche esté tan poco ocupado.

- Bastaría con implantar en la página web del municipio una sencilla aplicación para que la gente pueda compartir el coche de acuerdo con las necesidades de cada uno.

- En la comarca, se podría aplicar la experiencia de Mondragón – Alto Deba donde se ha constituido una plataforma para compartir el coche.

- EROSKI también debería de implantar medidas a favor de compartir el coche.

inguruan zera aipatu da: Batzuetan, autobus-linearen arabera, haundiegiak direla erabiltzen diren ibilgailuak, eta irisgarriagoak diren mikrobusak erabiltzea nahikoa izango litzatekeela.

- Bizkaibus geraleku batzuetan ezarri diren taula elektronikoak begi onez ikusten dituzte bertaratutako batzuek.

- Gaur egun garraio publikoaren erabilpena zigortua dagoela esan da, garestiegia delako. Garraiobide honetako salneurriak murriztu beharko lirateke, bere erabilpena sustatzeko.

- Leinz-Miota, Gazeta, Gaztañeta, Lekeriketa, Berriozabaleta, Berrio, Aldape, Araunas, Iguria... auzo asko daude garraio publiko zerbitzu aukera barik.

- Durangaldeko herri guztiak lotuko lituzkeen autobus edo tren zerbitzua komenigarria litzatekeela aipatu da.

- Autobusak errepidean ematen diren auto-pilaketak jasan ditzakete, aldiz, trenak edo tranbiak ez lukete horrelako egoerarik nozituko.

- Trenak edo tranbiak ordutegi zehatzagoak dituzte eta errepideetako auto-pilaketek ez dute eraginik modu hauetan.

- Elorrio eta Durangoren tarte horretan tranbia bat ezartzea egokia litzatekeela esan da, beti ere maiztasun egoki bat izanez gero.

- Durangoko LZPan antza Elorrio eta Durango lotuko duen tranbia bat ezartzearen aukera azaltzen da.

▪ **Garraio alternatiboak, auto partekatua:**

- Udalaren aldetik autoa partekatzea bultzatu beharko litzatekeela esan da, esate baterako web-orrialdearen bitartez edota beste herri batzuetan dauden argidun iragarki taula bitartez.

- Autoa partekatzeko sentsibilizazioa autoan bakarrik joatea txarto ikusia izatera bideratu beharko litzateke.

- Udalaren web-orrialdean aplikazio erraz bat ezartzea nahikoa izango litzateke jendeak bakoitzaren beharrizanen arabera autoa partekatzeko.

- Debagoienean ezarri den autoa partekatzeko plataforma abiapuntutzat hartuta, Durangaldean ere esperientzi hau ezar liteke.

- EROSKIk bertako langileen artean mota honetako neurriak ezarri beharko lituzke.

- Autoaren okupazioa altua saritua izan beharko litzateke

- Debería de premiarse la ocupación alta del vehículo (por ejemplo en la autopista).

- Alguien comenta que los/las condutores/as que quieran compartir coche podrían llevar un distintivo (como una pegatina verde) para hacer ver que dicho coche está disponible para ser compartido.

- Actualmente, se comparte el coche los fines de semana porque no se puede conducir bajo la influencia de las bebidas alcoholicas.

- Es dificultoso compartir coche si los/las ocupantes son de diferente empresa.

▪ **Aparcamientos disuasorios:**

- Habría que analizar si el aparcamiento situado delante del Hotel Villa de Elorrio se utiliza como aparcamiento disuasorio.

- También habría que analizar si el aparcamiento ubicado en Abadiño cerca de la estación de Euskotren y cerca de las Escuelas se utiliza como aparcamiento disuasorio.

- También podría existir un aparcamiento disuasorio en Berriz debajo de la parada de autobús donde para el bus de Lekeitio.

▪ **La movilidad en las empresas**

- Actualmente, la mayoría de las empresas están situadas en la periferia de los núcleos urbanos y por ello deberían de implantarse medios para que todos/as pudiésemos utilizar el transporte público.

- Las empresas deberían de flexibilizar las horas de entrada y salida de sus trabajadores/as.

- Las empresas deberían de implantar medidas para que la gente pudiese ir en bicicleta. (por ejemplo: aparcabicis, vestuarios...)

- Las empresas grandes deberían de elaborara Planes de Movilidad con el fin de reducir los desplazamientos de sus trabajadores/as en coche.

- A las empresas que generan mucha movilidad, se les podría imponer algún canon similar a la Ecotasa. Aunque entre los asistentes se ve mejor bonificar que penalizar.

- Una posible medida que reduciría la movilidad en

(autopistan adibidez).

- Parte-hartzaile baten ustetan autoa partekatu nahi duten gidariek nolabaiteko ezaugarri bat eraman dezakete (pegatina berde bat esaterako), gidaria autoa partekatzeko prest dagoela adieraziko duen zerbait.

- Gaur egun autoa asteburuetan partekatzen omen da, alkoholaren eraginaren menpean gidatzea ekiditzeko asmoz.

- Zaila da enpresa desberdinetan lan egiten duten pertsonek autoa partekatzea.

▪ **Disuazio-aparkalekuak:**

- Villa de Elorrio Hotelaren aurrean dagoen aparkalekua disuazio-aparkaleku bezala erabiltzen den aztertu beharko litzateke.

- Abadiñon (Matienan) eskolaren eta Euskotreneko geltokiaren tartean dagoen aparkalekua disuazio-aparkaleku bezala erabiltzen den aztertu beharko litzateke.

- Berrizen ere ba omen da horrelako erabilpena izan dezakeen aparkaleku bat, Lekeitiorako bideko autobusa hartzen den geralekuaren ondoan.

▪ **Mugikortasuna enpresetan**

- Gaur egun enpresen gehiengoa herrigunetik hurrun kokatua dagoela aipatu da, eta horregaitik premiazkoa dela garraio publiko bidez bertara heldu ahal izatea.

- Enpresek langileen sartu-irteera orduak malguagoak izatea ahalbidetu beharko lukete.

- Aldi berean, langileak bizikletaz lanera joateko neurri batzuk ezarri beharko lituzkete, bizikletentzako aparkalekuak eta aldagelak egokituaz.

- Enpresa haundiek Mugikortasun Planak egin beharko lituzkete, langileen joan-etorriak murrizteko helburuarekin.

- Mugikortasun asko sortzen duten enpresei nolabaiteko zigorra ezarri beharko litzaieke, Ekotasa antzerako kanon bat. Dena den, bertaratuen ustez hobe da saritzea zigortzea baino.

- Ibilgailu pribatuan enpresetara zuzendutako mugikortasuna murriztu ahal izateko neurri eraginkor bat aparkalekuen

| | |
|---|---|
| vehículo privado en las empresas, podría ser reducir las plazas de aparcamiento. Ya que si no tienes donde aparcar, buscas otros medios alternativos al coche.<br>- El Ayuntamiento debería de llamar la atención a EROSKI.<br>- Debería de haber ventajas fiscales para las empresas grandes que implanten servicio de transporte colectivo para sus trabajadores.<br>- Las retenciones de los vehículos en horas punta en la N636 es incrementando por el paso a nivel situado en los alrededores de la rotonda del Hipermercado de EROSKI.<br><br>▪ **Implicación social e institucional:**<br>- **Implicación institucional desde la Mancomunidad:**<br>- La Administración debería poner los medios, poniendo una alternativa al transporte privado.<br>- Se debería aprobar en todo Euskadi una Ley de Movilidad.<br>- Ante todo debería de haber más colaboración entre todos los Ayuntamientos mediante la Mancomunidad.<br>- Teniendo en cuenta que hasta el momento no se ha realizado ninguna experiencia de bidegorri en el municipio, sería necesario que el Ayuntamiento comenzase a implantar bidegorris en Elorrio.<br>- **Implicación social:**<br>- Tendríamos que concienciarnos y socializar el hecho de dejar a un lado el uso del vehículo privado a través de la educación. | murriztu ahal izateko neurri eraginkor bat aparkalekuen murrizketa dela esan da. Ez baduzu non aparkatu autoa ez den beste garraiobide bat bilatzen duzu.<br>- Udalak EROSKIri neurriak ezartzea eskatu behar liokeela esan da.<br>- Enpresa handiek garrio kolektiboa ezar dezaten zerga abantailak izan behar lituzkete.<br>- EROSKIko hipermerkatutik gertu dagoen biribilgunearen inguruan den trenaren pasabideak N 636ko auto-pilaketetan eragina du.<br><br>▪ **Erakundeen eta gizartearen inplikazioa**<br>**Amankomunazgoko Erakundeen inplikazioa:**<br>- Administrazioak garraio pribatuaren alternatiba bat izateko baliabideak jarri beharko lituzke.<br>- Euskadirako Mugikortasun Lege bat ezartzea beharrezkoa dela esan da.<br>- Amankomunazgoaren bitartez, Udal guztien arteko elkarlana ugaritu eta indartu beharko litzateke.<br>- Elorrion oraindik ez da bidegorririk ezarri. Elorrioko Udalak bizikletentzako bide-sare bat ezartzea beharrezkoa dela esan da.<br><br>**Gizartearen inplikazioa:**<br>- Denon lana omen da gizartearen mentalitatea aldatzea, ibilgailu pribatua alde batera utzi eta mugitzeko ohitura iraunkorrago bat bultzatzea, hezkuntzaren bitartez. |
| **5. Resumen del trabajo grupal** | **5. Azterketaren laburpena** |
| Una vez terminado el trabajo grupal, las consultoras exponen alternativamente las conclusiones más importantes obtenidas en dichos grupos. | Taldekako lana bukatu ostean, teknikariek lantaldeetan egindako ekarpen garrantzitsueneri buruzko laburpen bat egin dute eta taldekideei ados dauden galdetu. Adostasuna izan da. |
| **6. Agradecimientos y despedida** | **6. Agurra eta hurrengo pausuen azalpena** |

| | |
|---|---|
| Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se la próxima reunión tendrá lugar el 24 de junio donde se presentará las propuestas de acción del Plan de Movilidad Sostenible del Duranguesado para su debate.<br><br>Se comunica el envío del acta al Ayuntamiento y a los asistentes.<br><br>Se agradece a todos y todas su presencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, hurrengo pausua zein izango den azaldu da. Ekainaren 24ean berriz ere herritarrekin biltzea da asmoa. Beste parte-hartze foro bat ospatuko da egun horretan, Durangaldeko Mugikortasun Iraunkorraren Ekintza Planaren aurkezpena izango da hizpide foroan.<br><br>Parte-hartzaileei azaldu zaie akta onartzen denean Udalaren bitartez herritarrei zabalduko zaiela.<br><br>Bertaratutakoei beraien ekarpenak eskertu zaizkie, eta hurrengo fororako gonpidapena luzatu zaie. Hurrengo baten ere beraien zalantzak eta ekarpenak elkarbanatzeko prest daudela antzeman da. |